

bidegileak



Andolin Eguzkitza (1953-2004)

Egilea:

XABIER KINTANA URTIAGA

Atarikoa

Bizitzak, bere etengabeko joan-etorrian, era askotako lagunak ezagutu eta tratatzeko aukera eskaini ohi digu. Ezagutza horiei esker geure nortasuna osatu, aberastu, moldatu eta trinkotzen dugu, haiena ere gurearekin segur aski egiten den bezala. Eta gu horretaz konturatu ez arren ere, urteen eta harremanen poderioaz, pertsona ezagun horiek ohiko, normal eta ezinbesteko bihurtzen zaizkigu, gurekin betidanik egon balira bezala, gure bizitzaren saihestezinako osagai gisa. Horrexegatik, herioak, bat-batean etorrita, horrelako bat ustekabean daramakigunean, haien benetako balio, pisu eta



Andolin Eguzkitza Bilbao (1953-2004)

faltaz konturatzen gara, eta haien eguneroko presentziari zenbat zor diogun ohartzen. Horietako bat, zalantzarik gabe, bera ezagutzeko zori preziagaitza ukan dugunontzat behintzat, Andolin Eguzkitza Bilbao izan da, azken adineko ajeak pairatu baino lehen, gaztaroko idealismo, amets eta ilusio guztiak oso-osorik oraindik gordetzen zituenean, musa zelatien eskutik Peter Pan beti nerabearen «Inoiz eta sekula ez»-eko herrialde amesgarrira abiatua.

Andolin Eguzkitza, Santurtziko seme

Andolin Eguzkitza Santurtzin jaio zen 1953.eko abenduaren 6an. Harrigarria irudi dakiguke, non eta Ibaizabalen ezkerreko arrantzale herri eta merkatalgo portu horretan, euskara ia erabat galdurik zegoen tokian Eguzkitza bezalako euskaltzale bat sortzea. Halere, haren testuingurua hobeki ikusiz gero, erraz kontura gaitzke ez zela hor aparteko kasualtaterik.

Alde batetik, Andolinen gurasoak, euskara ez bazekiten ere, gure hizkuntza galdu berria zuen belaunaldikoak ziren biak. Aita, Antolin, Lamiakokoa zen, eta Celsak, amak, Portugalen jaioa izan arren, Fikakoa zuen aita, erabat euskalduna, Andolinen gainerako aitona-amonak bezalaxe. Senar-emazte biak tratu

oneko eta umore hobekoak ziren eta aberzale zintzoak ere bai, hots, beren herriaren maitaleak, egiazko patriotak, eta ahalegin berezia izan zuten beren sei seme-alabei (Nekane, Edurne, Keltse, Andolin, Josu eta Iñakiri) bertoko balioak eguneroko etsenpluz estimatzen irakasteko.

Euskal kultura, bestalde, ez da, soilki, liburu eta ikerketan lortzen den zerbait, bertoko giroan, etxean hasita, txikitandik eskuratzen den portaera baizik. Eta bizitzarekiko euskal jarrera berezi hori, lagun-hurkoa beti errespetuz tratatzekoa, duintasuna, dotorezia, bertoko gauzetarako interes eta maitasuna, emandako hitza betetzen jakitea, zintzoki jokatzeko ohitura, zintzotasuna..., ene ustez, etxeko girotik jaso zuen Andolinek, nolabaiteko osmosiaz xurgaturik. Alde horretatik,



Familia osoa, etxeko egongelan 1965ean.
Andolin behean dago: ezkerreko lehena



Lehen jaunartzea, Santurtzin, 1960an

umearen zentzuna etxean entzuna Bizkaiko esaera zaharrak dioskunari eutsiz, zinez esan daiteke Andolinen lehenbiziko euskal irakaspenak familian bertan bereganatu zituela.

Eguzkitzarrez gainera, noski, baziren Santurtzin beste familia abertzale batzuk ere, eta frankismo garaian, katakunbetako giroan bezala, elkarren arteko harremanak lantzen saiatzen ziren, Euskal Herria ezagutzeko turismo-bidaia antolatzen, euskal kantuak elkarrekin abesten, diktadurapean ere beren artean euskaltzaletasunaren sua, gar apalean egon arren, itzali behintzat egin ez zedin. Euskal sentimendu horiek berek bultzatuko zituzten geroago beren herriko lehen ikastola sortzera ere.

Santurtzin, bestalde, baziren euskal letretan ere arituriko beste pertsona batzuk; esaterako Genaro Urtiaga idazle eta poeta eta Joan Anjel Etxebarria idazle eta greko-latindar autore klasikoaren itzultzailea, adibidez. Horiek guztiok, zeinek bere biziaren lekukotasunarekin, lagundu egin zioten Andolini eta beste askori euskal bidea aurkitzen eta lantzen, gure inguruan erdal itzalak nagusi ziren garai zail haietan merezimendu gutxi ez dena.

Ez zen, beraz, Andolin Eguzkitza ustekabeen jaioriko perretxiko bakartia, euskara galdua zegoen tokian sortua, aurretik ongi zainduri-ko eta maiz jorraturiko baratze-ko fruitu umotua baizik.



Umeetako Santurtzi

Ikasketak

Lehen ikasketak Santurtziko San Jorge ikastetxean egin ondoren, Bilbora eraman zuten gurasoek estudiantzera, aita eskolapioen ikastetxera. Hantxe ezagutu zuen Justo Mari Mokoroa tolosarra, frantsesa ongi irakasteaz gainera, bere *Genio y Lengua* liburu argigarria eskuratu ziona. Beste irakasle euskaltzale batzuk ere izan zituen ikastetxean: Orkoién, Ortigosa edo Valencia eskolapioak edo Javier Eizagirre irakaslea, eta guztiok eragin ez txikia izan zuten bere euskal kontzientzia moldatzeko orduan. Beste ikasle askok bezala, Mokoroa beti laguntzaile izan zuen euskarari buruzko galderak eta gramatika-zailtasunak

argitzeko, bai eta berak euskarari buruz zuen ikuspegi berezia jakinarazteko ere.

Eskola aldian musika ere ikasten jardun zuen. Santurtzin bazen aldi hartan musika-irakasle bat, Miren Rojí andrea, ona bezain zorrotza, haren ikasleek Bilboko kontserbatorioan lortzen zituzten kalifikazio bikainengatik oso ospetsua, eta Andolin haren ikasle izan zen. Txistua jotzen ere ikasi zuen eta maiz egiten zituen joaldiak bere herrian txistulari helduagoekin batera.

Behin batxilergoa amaitu eta gero Deustuko Unibertsitatera joan zen, Filologia Erromani-koa egitera, ez baitzen oraindik Euskal Filologi estudio-rik unibertsitatean. Garai hartan



San Jorge ikastetxean, Santurtzin, 1961ean



Bere amona Dolores Muxikarekin
eta Maria Luisa Bilbao izekoarekin, 1968an

Andolinek, unibertsitate giroan, geure herriaren egoera ilunaz kezkatuak zeuden beste ikasle eta irakasle euskaltzale batzuekin batera euskara eta euskal jarduerak bultzatzeko, Euskal Kultur Mintegia antolatzen eta bera bultzatzen aritu zen. Bertako idazkaria Isabel Lertxundi izan zen, zoritxarrez, auto-istripuan gazterik hila. Aldamenean, Alfonso Irigoien, Karmele Rotaetxe eta Gregorio Monreal irakasle euskaltzaleak izan ziren, eta geroago Patxi Altuna eta Gotzon Garate ere bai. Garai hartan Joseba Agirreazkuenaga, Rikardo Badiola, Roman Basurto, Sabin Egileor, Patxi Goenaga, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Kintana eta Juan Jose Zearreta izan zituen

ikasle eta lagun, beste askoren artean. Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasten ziharduenean ere, jada bertako Euskal Kultur Mintegian ari zen, euskara eta euskal kultura bultzatzen.

Ikasteaz gainera, bere adineko gazteen artean euskaltzaleatasuna eta abertzaleatasuna lantzeko beta izaten zuen. Horrek atsekaberen bat ekarri zion, jesuitek unibertsitateki zati baterako kanporatu baitzuten, handik urtebetegarrenean, portaera ona erakustea-gatik, berriz onartu arren.

Unibertsitateko ikasketak 1975ean, Franco hil baino hilabete lehenago, Deustuan amaitu



Washington-en, Etxe Zuriaren aurrean, 1986an

ondoren, estudiatzen segitzea pentsatu zuen. Ordura arte eskuraturiko kalifikazio bikainek aukera ona eman zioten Eguzkitzari kanpoan ikasteko beka lortzeko: Salamancan (1975-76) Koldo Mitxelenarekin eta Alemanian Koloniako Hizkuntzalaritza Institutuan (1976-78) adibidez. Ondoren Estatu Batuetara joan eta Iowa-ko Unibertsitatean Hizkuntzalaritza Orokorreko Magistergoa egin zuen (1980) eta Kaliforniako UCLA Unibertsitatean, Los Angelesen, (1986), aldiz, bere doktorego tesia burutu zuen (*Topics on the syntax of Basque and Romance*). Lan hau



Andolin, toga jantzita, bere gurasoekin,
Los Angelesko Unibertsitatean, 1985

1987an argitaratu zuten (Bloomington, Indiana: Indiana University Linguistics Club).

1989an Espainiako Gobernuaren eta Fullbright-en beka bat eskuratu zuen, Massachusetts Institute of Technology-n sei hilabeteetan ikerkuntzan aritzeko. 1992 eta 1993. urteetan Alemaniako Hamburg-eko Unibertsitatean egon zen euskararen eta erromantzearen sintaxia ikertzen, Alexander von Humboldt Fundazioaren bekaren bitartez.

Linguistika arloan Andolin Chomskyren jarraitzailea zen. Bere ikerketa arloan etengabe saiatu zen maisu erraldoi horren teoriez jabetzen, baita euskarari aplikatzen ere. Adibide gisa, hona hemen Andolinek ukitutako zenbait gai: «Kontrol- eta oharrenaditzen jokabide sintaktikoaz», 1985; «The Syntax of Focus in Basque», 1986; «Aditz eta predikatu faktiboak», 1988; «Adnominals in the Grammar of Basque», 1993; «Indirect Questions and other Adnominals in the Grammar of Basque», 1997; «Kasuak eta postposizioak: deklinabidea eta postposiziobidea», 1997; «Postposizioak euskal gramatikan», 1998; «Adnominalen markatzaileak euskal gramatikan», 2001.

Ageri denez, ikasketa-ikerketak egiteko laguntzak eta sari ugari jaso zituen. Hori zela eta, Mitxelena zenak umorez esaten zuen Andolin Guinness liburuan egoteko modukoa zela, berak behintzat ez baitzuen ezagutzen beste euskaldunik kanpoan ikasteko hainbeste beka lortu zuenik. Eta segur aski arrazoia zuen.

Luzaro ibili zen munduan zehar ikasten Andolin Eguzkitza, bere burua jakituriaraz eta esperientziaraz hornitzen. Hala eta guztiz ere, ez zuen horregatik galdu bere herriaganako, bere jendeaganako lehengo atxikimendua. Atzerrian ikusi eta ikasiek beren balio propioak ikuspegi zabalagoz estimatzen irakatsi zioten, eta behin formazio ona lortu ondoren, bertora itzuli zuten begiak, kanpoan ikasia eta bere ekarpen intelektualak bere herriari eskaintzeko.

Mundu zabaletik egindako ikas-ibilaldietan hitzaldi ugari eskaini zituen hizkuntzalaritzaren eta literaturaren gainean euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta alemanez. Era berean aitz artikulu idatzi eta argitaratu ere bai.



New Yorkeko Nazio Batuen Erakundearen atarian.
2000.eko otsailean

Euskara lantzen

Ez ziren, ordea, unibertsitatekoak Andolin Eguzkitzak euskal munduarekin izan zituen harreman bakarrak. Hizkuntzaz eta literaturaz kezkatu, ingurumen horretako jendea ere ezagutu zuen. Bilbon *Anaitasuna* aldizkariaren ondoan ibili zen, Imanol Berriatua zenarekin eta tratu handia izanez.

Euskaltzale genuen Andolin, gure hizkuntzaren maitale sutsua, baina ez, soilki, euskara euskaldunon berezko hizkuntza zelako, berez mintzaira interesgarri eta eder zeritzolako baizik. Hamabost urterekin euskara ikasten hasi zenetik, lexiko, morfologia eta sintaxiaren bide eta zidorretatik zehar zihoan ginoan, harriduraz harridura, ezusterik ezuste, bitxiz beteriko oihan zoragarri batean barneratzen zela iruditzen zitzaion. Lehenik bizkaiera ikasi zuen, eta geroago beste euskalkiak eta batua ere bai. Idazteko orduan ia



Andolin Eguzkitza,
1983an

beti eredu literario nazionala erabili arren, lagun artean bizkaieraz jarduten zuen eskuarki. Edonola ere bere euskara batuan beste euskalki guztietako lexiko eta sintaxi aberastasanak txertatzen saiatzen zen, Bizkaikoak batez ere.

Gabriel Arestirekin harreman estu eta fruitukorrak izan zituen Andolinek solasaldi, eztabaida eta bidaia askotan zehar. 1970. urtean, urriaren bukaeran Euskaltzaindiak bere hileroko bilkura Zuberoan zuen, Jean Dominique Salaberri kantu biltzaile zuberotarrari, bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuaren lehen mendeurrenean, omenaldia egiteko, eta, hortaz, ekitaldi irekia zen. Egun hartan, gainera, Luis Villasantek Euskaltzaindiaren burutza hartzen zuen. Aresti eta Andolin, hortaz, haraxe joan ziren elkarrekin.

Hura zen Andolinek Maulera egiten zuen lehenbiziko bisita. Bide osoan zehar Gabriel Arestirekin era guztietako euskal gaiak ukitu

eta eztabaidatzeaz gainera, Zuberoara helitzean, Andolinek bileran zeuden euskaltzainekin zein iparraldeko jendeekin euskaraz parra-parra eta inolako oztoporik gabe mintzatzen jardun zuen. Txikitandik euskaraz zekiten euskaltzain zahar batzuk ordea, haiekin, zuberotarrekin bereziki, elkar ezin adituz zebiltzan eta guztiek harriduraz miresten zuten bizkaitar umegorri haren hizkuntz trebetasuna eta maila ona. Eta hori guztiori inolako harrokeria eta hantusterik gabe egiten zuen gure Andolinek, hots, berak hainbeste miresten duen xalotasunaz, hori gauzarik ohikoena eta normalena balitz bezala.

Aresti bera ere harri eta zur utzi zuen bidaia honetan, eta, haren omenez, artikulua gogoangarria idatzi zuen *Anaitasuna* aldizkariaren hurrengo zenbakian: *Munstro bat, munstro bi*, Euskal Herrian sortzen ari zen euskaldunberrien belaunaldi gaztea goresteko. Hura nolabaiteko profezia izateko zen.



Andolin Euskaltzaindian,
Txomin Peillen eta Jean Louis Davant
euskaltzain zuberotarren artean

Eguzkitzak euskara ikasi zuenean, Andima Ibiñagabeitia, Federiko Krutwig eta Gabriel Aresti bizkaitarrekin, Txillardegi gipuzkoarrekin, Henrike Knörr arabarrarekin, Jon Mirande zuberotarrarekin eta beste askorekin etengabe luzatzen ari zen jada euskaldun berrien katea. Horretara, horien guztien ahalegin pertsonalaren poderioz hausten zen, ordua arteko abertzale txepel askoren leloa, euskara nahitaez txikitari ikasi behar zelako ipuina, beren alferkeria estaltzeko zerabiltena. Horien etsenpluak inarrosirik belaunaldi gazteagoak haiek urraturiko bideari jarraitzea erabaki zuen, eta harrezkero gero eta segizio handiagoa izan du.



Enkarterriko Urrezietako Batzar-etxearen ondoan, Txillardegirekin eta bere koinatu Joseba Tobar-ekin, 2000.eko maiatzean

Andolin eta hizkuntzak

Hizkuntzazalea zen Andolin Eguzkitza. Haurtzaroko gaztelaniaz gainera, euskara, frantsesa, latina, alemana, arabiera, ingelesa, italiara eta katalana ere ikasi zituen, eta horietako askotan oso ongi mintzatzera heldu zen. Haren lagunei maiz itzultzaile zerbitzua egiten zien, testuak ingeles-alemanera emanaz batez ere, bai eta hauek jasotzaileengandik mezezi gabeko zorionak eskuratu ere, ustez idaztean zerabilten «estilo on eta hizkuntzaren kalitate bikainagatik».

Zekizkien mintzaira horien guztien artean, euskara eta alemana zituen maiteen Andolinnek. Alemana ikasten Deustuko Unibertsitatean hasi zen, bertako ikaslea zelarrik. Praktikak egiteko Alemaniako ospitale psikiatriko batera joan zen, epileptiko eta nerbio-gaixotasunak zituzten pertsonak zaintzera. Bertan zer egiten zuen galdetzen ziotenean honela erantzuten zuen: «Alemanak oso jende metodikoak izaten dira eta gaixoak beti kontrolpean izaten dituzte. Niri blok bat ematen zidaten eta ordu egokian pazienteak bisitatzera joan behar izaten nuen, espero zen orduan nerbio-atakea etortzen ote zitzaien egiaztatzeraz». Eta atakea izaten zutenean, zuk zer egiten zenien? itauntzen ziotenean: «A, koadernoan pazientearen izenaren ondoan gurutze bat idatzi, dena ondo zihoala markatzeko, eta besterik gabe hurrengo pazienteagana joan, horrek ere ordu egokian atakea izaten zuen ala ez ikustera».



Itsasoa maite zuen Andolinek. Hemen Mundakako itsasadarraren ondoan ageri zaigu

Ondoren, Koloniako Unibertsitatean bi urte eman zituen Hizkuntzalaritza Institutuan, hizkuntza eta literatura hobetzen. *Fontes Linguae Vasconum* linguistika-aldizkarian argitaratu zuen lehenbiziko artikulua, hain zuzen, hizkuntza horretan eгина zen, aurretik aleman unibertsitate horretan aurkeztua. Alemanez hain ohikoak izaten diren hitz elkartu eta eratorri luzeak biziki maite zituen, eta maiz euskaraz ere gisa horretako berba kilometrikoak sortzen saiatzen zen, eskuarki bere inguruko lagunak entusiasmatzea lortu gabe baina. Halere, hitz berriak eratzeko orduan, alemanari buruzko oso informazio fidagarria eskaintzen zuen beti.

Andolinengan, bestalde, argi ageri zen euskarak eta euskal kulturak normalkuntza bidean lorturiko maila jasoaren isla, ondoko pasadizoak frogatzen duenez. Stephen Jay Gould estatubatuar biologo eta idazle ospetsua gonbidatua zuen Euskal Idazleen Elkarteak 2000.eko abenduaren 13an Eibarren mintzaldi bat egin zezan neodarwinismoari buruz bertako Armagintza Eskolan. Hizlariaren maila eta ospea ezagaturik, jende asko bildu zen han bera entzuteko. Mintzaldia ingelesez izango zenez gero, aldi bereko itzultze zerbitzua aurreikusia zuten antolatzaileek baina, azken orduko gaizki ulertu batengatik, kontua da itzultzailea ez zela egun eta ordu horretan

agertu, hitzaldia biharamunean zelakoan. Egoeraren larritasunaz jabeturik, arazoa konpontzeko, Andolinek berak, hizlariaren aurkezlea zen aldetik, itzulpena ingelesetik euskarara egiteko eskaini zuen bere burua, eboluzioari buruzko gogoeta berritzaile haiek, egia esan, Andolinen ohiko kezka eta zaletasunetatik aski gai urrunak izan arren.


Berbaldi osoan zehar, behin ere hutsik egin eta inolako zalantzarik izan gabe, gaia bereztat aski arrotz eta ezohikoa bazen ere, bikainki azaldu zuen Gould jaunaren solasa, terminologia zientifikoa erabateko zehaztasunez errespetatuz. Eta hizlaria bera ere horretaz ongi jabetu zen, eta horregatik, ekitaldia amaitzean, berari zuzenduriko txalo zartaren ondoan, mirespenez eta esker onez, beste txalo batzuk eskatu zituen Andolinentzat, bere itzultzaile-zeregina hain ederki bete zuelako.

Ekintza horrek, bat-batean, ezustean burutuak, ondo eta ederto erakusten zuen, bate-tik, euskarak erdietsitako normalkuntza eta zientzi homologagarritasuna, eta bestetik euskara ikasi eta landutako pertsona baten maila noraino hel zitekeen. Urte batzuk lehenago ezin pentsatuzkoa.

Andolin kristau

Andolin Eguzkitza fededuna zen, katolikoa. Sinesmena gurasoengandik ikasia zuen baina ez zuen erlijioa bizi, soil-soilik, iganderoko meza eta axaleko errito hutsetan gelditzen den inertziatzko sineste-multzo bezala, barru-barruan eramaten den sentimendu sakon moduan baizik. Azken garaiotako giro intelektual laiko eta antikatikoa gorabehera, neurri handiz Espainiako Elizak frankismoaren alde luzaro izandako portaerak bultzatua, Andolinek horregatik beti jakin zuen kristautasunaren salbazioko funtsezko mezu izpirituala bereizten haren administratzaile mundutarretatik. Erlijio-kezka hori bere azken egunetaraino ukan zuen, eta herioak eraman zuenean Deustuko Unibertsitatean Teologia ikasten ari zen, jadanik lehenbiziko bi ikasturteak gaindituak izanik.





Eguzkitzaren eleberrietako bat



Andolin Eguzkitzaren poema liburu batzuk



Idazlanak

Bere belaunaldiko idazle gehientsuak bezala, orduko aldizkarietan iritzi-artikuluak eta kritikak hasi zen euskaraz idazten A. Eguzkitza. Emaitzak ikusita, idazle eskuzabala izan zen, haren artikuluak hainbat aldizkaritan sakabaturik aurki daitezke eta; adibidez *Anaitasuna*, *Argia*, *Euskaldunon Egunkaria*, *Jakin*, *Hegats*, *Maiatz*, *Zehatz*, *Egan* edota *Berria*-n.

Literatura, ordea, bizitzako gertakariez gainera, oso bereziki literaturaz elikatzen denez gero, Eguzkitzak ez zituen bera baino lehena-goko euskal idazleak gutxiesten eta horietako batzuen edizio berriak moldatzen jardun zuen, Joan Tartasen *Ontsa hiltzeko bidia*-ren berrargitalpena (1975) eta Jon Miranderen poesi bilduma (*Orhoituz*) prestatuz (1976). Zuberoako idazle honen lana bereziki maite zuen, eta urte

berean Andima Ibiñagabeitia saiakera-saria eskuratu zuen berari buruzko lan batengatik.

Idazlan originalei doakienez, Andolinek *Lehen orenean* (1978) *Urkidian zehar* (1987) eta *Herioaren itzalpeetan* (1998) eleberriak eta *Orhio mendirantz urratsez urrats* (1986) eta *Mila urte igaro eta, ura bere bidean* (1993) poemaliburuak idatzi zituen, bai eta bere poesiaren antologia ere, euskaraz.

Horiez gainera, kanpoko idazle batzuen itzulpenak moldatu ditu, mundu zabaleko literatura gurera euskaraz eskaintzeko asmoz. Hizkuntzak hain ongi jakiteak, noski, literatur itzulpenak testu originaletatik egiteko aukera ematen zion, eta hor ere, ardua eta sen berezia zerabilen, hitz bakoitzaren forma, pisua, egitura fonetiko eta konnotazioak zehazki balioetsiz. Hor daude, esaterako, Konstandinos Kavafis idazle

greko modernoaren poema-antologia ederra (1995), edota Gunter Grass-en obra, *Batzarra Telgtenen* izenburuz 2002an argitaratua.

Ez da harritzekoa, beraz, merezimendu gutxioi esker, 1997tik 2002ra bitartean Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria izatea. Kargu horretan egon zen bost urteetan ardua berezia izan zuen literatur arloan ere Galeuscaren harremanak sendotzeko.

Era berean Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku-Batzordearen kidea izan zen 1997tik.

Sormen- zein itzulpen-lanetan, Eguzkitzaren ezaugarri nabarmenena, nagusia ez esateagatik, sentiberatasuna zen, gauzak esateko finezia, zehaztasun dotorea, ñabardurak adierazteko ardua, beti hitz aproposenak aukeratzeko sena, maiz euskalki ezberdin eta urrunetako lexikoa elkarrekin nahasiz («berba egin gura ukan dut»), etorkizuneko literatur hizkuntzaren aldeko apustu garbia bezain ausarta eginenez, gaur zail eta irrealizat jotzen duguna georok, euskal irakaskuntzaren poderioz, erraztu eta normalduko duelakoan.

Orotarik jakiteko grina

Gaurko giroak maiz espezializaziora bagaramatza ere, Ernazimenduko Pico de la Mirandola haren antzera, jakin-min eta egarri ase ezina izaten zuen Andolinek, eta horrexegatik ustekabeko gauza askoren informazio-iturri agortezina izaten genuen hizkuntzalarriztan, soziolinguistikan, geografian, artean, musikan, filosofian, erlijioan, politikan...

Euskal Herriaren geografia, adibidez, gutxik bezala ezagutzen zuen: hegoaldea zein iparraldea, mendebaldea zein ekialdea. Aski zen harekin hizketan aritzea zenbat eta zenbat herri, herrixka mendi eta toki bisituak zituen konturatzeko.

Euskal Herriko gorabeheren aditu fina izaten zen eta gure panorama politiko, sozial eta kulturalaren jakile aparta, pertsonalki mantentzen zituen harreman ugariari esker etengabeki eguneratua. Horregatik, harekiko elkarrizketak oso onuragarriak izaten ziren, berak ere besteengandik bere datuak kontrastatzeko argibideak galdetzen zituen bitartean.



Santurtzi: itsas portua, A. Eguzkitzaren sorterrria

Zaletasunak eta keriak

Bere jatorrizko Santurtzirekin, afektuzko lotura askorekin elkarturik egon arren, Andolin Bilbon bizi zen, Zazpi Kaleetan, eta Bizkai-ko hiriburu honetan egiten zuen bere bizitza sozial eta kultural gehiena.

Amerikan usadioa hartuta, astero gimnasia joaten zen, eta ohitura eta jan-edanetan bere burua zaintzen zekien. Kirol- eta mendizalea ere bazen. Ez zuen alkoholik inoiz edaten, ez eta tabakorik erretzen ere, eta lagunaren artean zegoenean behintzat, jate urrikoa izaten zen. Senideen artean egoten zenean, ordea, entrama onekoa izaten omen zen eta arras gozozalea. Edozein kasutan, noizik behinkako asealditxoak gorabehera, dieta gordetzen eta argal egoten ahalegintzen zen.

Pertsona oso ordenatua genuen. Bere etxean liburuak aldizkariak, artikulu eta paperak beti zein bere lekuan zeuzkan, erraz aurkitzeko moduan. Aspaldiko ohitura zuen hori. Behin, ikasle zelarik, poliziak haren kurtsoko lagun bat, talde espainolista ezkertiar bateko militantea, harrapatu zuen, eta hark, bere egiazko taldekideak ez salatzeagatik, Andolin bezalako abertzaleen izenak esan zituen. Horren ondorioz, Eguzkitzak kartzelara joan behar izan zuen, baina ez zuen horregatik duintasuna eta patxada inoiz galdu. Dirudienez, polizia etxera etorri eta bere gela arakatzen hasi zitzaionean, Andolinek, bere ohiko lasaita-



Andolini tren-zaletasuna txikitandik zetorkion, Sefanitro enpresan, 1958.eko erregeen egunean egindako argazki honek erakusten duenez

sun-tonuaz, honela esan omen zien: «Aizue, mesedez ez nahasi nire bibliotekako liburuak, alfabetoz ordenatuak ditut eta».

Frankismo garaiko polizia haiek, noski, harriturik gelditu ziren, eta are harrituago, berekin komisaldegira eraman behar zutela esan ondoren, Eguzkitza gazteak, trentina galdu gabe, honela erantzun zienean: «Bai, berehalaxe noa zuekin, baina itxaron pixka bat. Sukaldeko hozkailura joan behar dut, baso bete esne edateko».

Mitxelenak behin idatzi zuen euskaldunok aski logikazaleak izaten garela. Hori egia baldin bada, Andolin Eguzkitza Bilbao euskaldunik euskaldunena izan zela pentsatu beharko litzateke, hizkuntzari dagokionez behintzat. Izan ere orain arteko ohitura, tradizio eta bestelako kontsiderazioen gainetik berak bu-

ruan logika baitzeukan; logika hori azken ondorioraino eramanez gero, gauza asko, grafiaz, formaz etab. hankaz gora utzi behar izan arren. Alde horretatik burugogor xamarra izaten zen. Bazirudien Atxuriko tren-geltokian Azillonako markesaren soin-eskulturararen azpian dautzan hitzak berak ere esanak zirela: «Egija gugaz, danen aurka». Kasualitatea ere bada Andolinen aitita, Dionisio Bilbao, amaren aita, non eta Fikan, Azillonako markes horren sortetxean jaioa izatea.

Haren beste zaletasun bat, txiki-txikitandik zekarrena, trenenganako maitasuna zen eta agian hor ere asabengandiko eragina ikusi beharko litzateke. Izan ere, trenzale hutsa zen. Haurtzaroan bere Santurtziko etxeko leihoetatik maiz orduak pasatzen zituen trenen joan-etorriei adi-adi begira. Umetan galdu zen batean gurasoek trenbidearen ondoan aurkitu zuten, trenen maniobrei adi-adi. Zaletasun horrek nagusitaraino iraun zuen.

Ahal zuen guztietan trenean bidaiatzea gustatzen zitzaion. Estatu Batuetan zegoela ekialdeko kostatik mendebaleko kostaraino joan zen trenez, trenez bidaiatzeko plazer hutsarengatik. Transiberiarrean ibiltzea zuen amets, baina hori lortu ez bazuen ere, Bilbotik Leon-eraino doan Roblako trenean, —lehen meatzaritza-bidaiak egiten zituen baina azken aldi turismorako egokitua— behin bertako makinista konbentzitu zuen lokomotorea eramaten utz ziezaion, eta lortu ere bai!

Euskaraz oso ederki eta zehazki mintzatzeaz gainera, geure hizkuntza nazionalaren erabiltzearen eta berreskuratzearen aldeko apostolua genuen bere eguneroko praktikan. Izan ere, ez zuen paradarik galtzen gure hizkuntzaren aldeko proselitismoa egiteko. Behin, duela hogeita bost bat urte, Baionako denda batera sartu zen, lagun batekin. Andolinek zerbitzariari euskaraz hitz egin zion, baina hark, Iparraldean, zoritxarrez, frantses ba-



Andolin Lekeitioko denda baten aurrean, bere amaren urtebetetzean, 1997.eko abuztuaren 10ean

tzuen artean oraintsu arte ohikoa izan den displizentzi eta arduragabekeri aurpegiaz, Molière-ren hizkuntzan euskaraz ez zekiela erantzun zionean, gure Andolinek ihardetsi zion: «Baina andrea, ez al dakizu Euskal Herrian bizi zarela eta bertoko hizkuntza euskara dela? Zure bezeroetarik asko, gainera, euskaldunak dira. Beraz on zenuke euskara ikasteaz arduratuko bazina».

Denda hartatik irtetean, Andolinek, bere ohiko zintzotasunaz, lagunari esan zion bere hitzei esker andre hura ordutik aurrera konturatuko zela Euskal Herrian euskara jakitea beharrezkoa zela. Lagunak, ordea, Iparraldeko egoeraren eskarmentua izanda, erantzun zion, andre hark aterako zukeen ondorioa, zorigaitzez, oso bestelakoa zatekeela, hots, bere buruari galde-tuko ziola nongo zoroetxetik alde eginak ote ziren gazte haiek, garai hartako Frantzian euskara ikasteko eskatzea erokeria hutsa baitzen.

Baina, halere, Eguzkitza moduko askoren desorduko idealismo goiztiar hark oraingo errealitate hobea ekartzen lagundu du. Gaur behintzat inork ez luke Andolinen jarrera hura erokeriatzat joko Baionan, eta euskararen ofizialtasuna, gero eta aldarrikatuagoa da, departamendu propioaren eskariarekin batera. Bistan denez, gizarte aldaketa guztietan ohikeriaren inertziaren aurka aitzindari izatea gogorra izaten da, eta sarritan gaizki ikusia izateko arriskua dakar aldean, baina, halere, denborak, azkenean, justizia egiten du, eta zuenari arrazoia ematen.

Izaera, pentsaera, eragina

Eskuzabaltasuna zen Andolinen ezaugarri nabarmenetako bat. Lagun hurkoari beti laguntzeko prest egoten zen. Segur aski bere izaera horretan zerikusia du barru-barruan zeraman kristau kontzientzia sakonak, baina, horrekin batera edo, nahiago bada, horrez gainera, bazegoen beste zerbait ere, haren berezko izaera zintzo, apal eta noblea. Ez baitzen kasualitatea Euskaltzaindiko sarrera-hitzaldirako aukeratu zuen gaia zein eta xalotasunaren laudorioa izatea. Xalotasuna, hau da, malizia eta ustekeriarik gabe bizitzeko, zintzotasun osoz mintzatzeko eta aurreiritziei kasurik egiteke jarduteko izpiritu-jarrera irekia, bertute erdiesgaitza, gaurko munduan horrek inozokeria dirudikeen arren.

Bilboko Zazpi Kaleetako María Muñoz kalean bizi zelarik, bere etxeko bizilagun bat, andre zaharra bera, analfabetoa zela konturatu zen.



Andolin Eguzkitza, 1983an

Andolinek pazientzia handiz luzaro eskolak eman zizkion, dohainik, irakurtzen eta idazten ikasi arte.

Xalotasun gizatiar berbera erakusten zigun, halaber, azaleko ezaugarri engainagarriez gainera, pertsonak barrutik ezagutzeko eta aintzat hartzeko zerabilen kezka, inor sekula ez mespreziatzeko ahaleginaz. Berezko joera zeukan, bestalde, besteen ezberdintasunak errespetuz onesten, aurreiritziei jaramonik egiteke. Jokabide zabal horrekin ez da harritzekoa uste eta pentsaera guztietako lagunak izatea, horietako batzuen ideologia eta adierazpen publikoekin inondik ere bat ez zetorren arren.

Ez da beti erraza izaten seme-alaba ugariko senitarteetan guztien artean harmonia eta tratu ona mantentzea. Esperientziak behintzat sarritan bestelako giro txarra erakusten digu: inbidiak, ezin ikusiak edota kaindar gorrotoak. Eguzkitzatarrena, ordea, barne-bake eta oreka onaren eredu horietako bat izan dela esango nuke, neba-arreben arteko harreman eder bezain inbidiagarriekin. Andolinek biziki maite zuen bere familia eta lotura horiek jagoten eta lantzen ahalegintzen zen.

Eguzkitzaren beste ezaugarria apaltasuna zen. Pertsona erabat zintzo eta noblea zen bera, maltzurkeriarik gabea, gauzak sentitzen zituen bezala esaten zekiena, baina beti erres-



Andolin eta bere anaia-arrebak beren gurasoen urrezko ezteien egunean. Santurtzin 1997.eko ekainaren 12an



Euskaltzaindiko langile batzuekin bere sarrera-hitzaldiaren egunean: Rikardo, Resu, Andolin, Emilio, Lutxi, Itziar, Pello eta Josune

petuz. Sentibera zen oso, eta inori hitzez edo egitez minik ez egiteko ardura berezia izaten zuen. Besteri minik ez egiteaz gainera, ahal zuen neurrian on egiten saiatzen zen.

Inor ez samintzeko ardura horrek bazuen bere ifrentzua. Besteen irainek, mespretxuek eta bazterturik sentitzeak min berezia ematen zion. Batez ere bere lankide edo lagun ustekoren batengandik zetorkionean. Inoiz adiskideoi esperientzia horiek kontatzen zizkigun, eta atsekabez aitortzen zigun ez zuela ulertzen zergatik halako pertsonak zeukan berarekin hain portaera desegoki, faltsu edo zatarra. Izan ere, zauririk mingarrienak ez zaizkigu eskuarki heltzen etsaiengandik, adis-

kidetzakoengandik baizik, eta unibertsitatean, gizarteko beste edozein tokitan bezala, aldizka adibide ez gutxi aurki daitezke. Andolin, hortaz, kristala bezalakoa izaten zen: gogor eta gardena, baina aldi berean hauskorra.

Bera behintzat lagun lagun ona zen. Beti egoten zen laguntzeko prest, eta astirik edo modurik ezagatik ezin zuenean, ea laguntza hori hurrengo batean eman ote zezakeen galdetzen zuen apalik, une hartako ezintasuna deitoratuz. Besteekiko kezka horregatik, Andolin ez zen bat ere bakarzale. Aitzitik, bizitza soziala atsegin zuen eta ongi sentitzen zen lagunarteetan, eta nolabait laguntasunaren laguna zela esan genezake.

Txikitan landuriko musika-zaletasuna ez zuen inoiz alde batera utzi eta sasoi batean Natxo de Feliperekin ibili zen kantari. Musika klasikoa zein modernoa atsegin zuen.

Euskara maite zuen Andolinek eta, gure hizkuntzarekin batera, Euskal Herria bera ere bai: bere jendea, bere izaera, bere nahiak eta etorkizun-ametsak. Horregatik, gorago aipatu dudanez, politikan ere jardun zuen. Beti ere ezker aldean, klase ahulenen fabore, eta bide demokratiko hutsetatik abiatuz. Halere, ongi eta hurbil ezagutzen zituen euskaldun batzuek —bere anaia Josu eta beronen andrea biak politikagatik kartzelaratuak— Euskal Herriaren egoera larriagatik pairatzen zuten sufrimendua eta bizitzen zuten sentipen agonikoa, eta borroka-bide batzuk onar-

tu eta justifikatu ez arren, ulertu bederen egiten zituen.

Militantzia politikoari doakionez, Andolin, alderdikeria ororen gainerik, abertzalea zen, hitz honek euskaraz duen jatorrizko esanguran: patriota, herrizale, bertoko balioen partaide eta defendatzaile, euskaltzale sutsua. Aldi berean demokrata zen, pertsona guztien eskubideak errespetatzearen aldekoa, bizitzeko eta nor bere iritzia esateko ahalari gauza guztien aurrean eusten ziona. Era berean ezkerrekoa zen, klase apal, zapaldu eta baztertuen laguna, langile, etorkin eta zokoratuen eskubideak bake eta politika bidez lortu nahi zituen. Azken urtean, ilusioz beterik, Aralar-en sartu zen, horren ideologian bere pentsaerako puntu nagusiak bildurik ikusten zituelako.



Pianoaz gainera, txistua jotzen ere ikasi zuen gaztetxoaren zenean, 1967ko argazki honek erakusten digunez



A. Eguzkitza bere koinatu-koinatekin: Edortza, Susana, Andolin bera, Enkarni eta Joseba



Bere poema liburua irakurtzen,
Bilboko kultur ekitaldi batean, 2001ean

Eguzkitza, euskaltzain

Andolin Eguzkitzak harreman luzeak izan zituen Euskaltzaindiarekin. Amerikako Estatu Baueatik itzuli bezain laster (1987) Akademiaren Gramatika Batzordearen partaide izan zen. Hor eskainiriko zerbitzu-laguntzen-gatik, 1991.eko urtarrilaren 31n euskaltzain urgazle izendatu zen. Exonomastika azpibatzaordearen kide izan zen 1995. urtetik aurrera, eta urte berean Azkue bibliotekaren batzordekide izendatu zen. Atzerriko hizkuntza asko ondo menderatzen zituelako, lan estimagarria egin zuen Euskaltzaindian euskal terminologia tekniko-zientifikoa erabaki-

tzeko orduan. Era berean, Eguzkitzaren iri-
tziak aintzat harturik eratu izan dira, neurri
handiz, geografi arloko euskal exonimo asko,
hots, Estatuen, herritarren eta hizkuntzen
izenak.

Azkenik, aita Luis Villasantek, hiltzean utziriko
hutsunea betetzeko, 2001.eko martxoaren
30ean euskaltzain oso izendatu zen. Enkarte-
rriko, hau da, Bizkaiko erdal eremuko lehen
euskaltzaina zen bera, eta euskaldun berria
gainera, belaunaldi gaztearen sinboloa. Sarre-
ra-hitzaldia bere jaioterrian, Santurtzin egitea
erabaki zuen 2002.eko otsailaren 23an.

Jai ahantzezina izan zen ospakizun hura, san-
turtziarrek ardura bereziz antolatua. Euskal-
tzainek Bilbon Euskal Herria izeneko ontzian
sarturik, handik Ibaizabalen bokaleraino ur

gaineko ibilaldia egin zuten, bide osoan trai-
neru batzuk aldamenen zituztela. Santurtzi-
ko arrantzaleen portu txikira heltzean, alka-
teak, agintariak, txistulari eta dantzari taldeek
ongi etorria egin zieten, eta segizio horrekin
joan ziren udaletxeraino. Aretoa mukururai-
no beterik zegoen, era guztietako eta ideo-
logia guztietako lagunez gainezka. Andolinek
Xalotasunaren laudorioa hartu zuen gaitzat.
Protokolozko erantzuna Xabier Kintana,
idazkariak, egin zion. Irteeran ere dantza tal-
deek ekitaldi polita antolatu zuten herriko
plazan.

Euskaltzain oso gisa aritu zenean, Eguzkitzak
talde-lanerako zeukan ahalmen eta egokita-
suna ezaguturik, Beñat Oiharzabalek haren
esku utzi zuen Hizkuntza Atlasaren burutza,
ordura arte berak eramana.

Santurtziko portuan ongi etorria
ematen. Eskuinetik hasita,
Sabin Intxaurrea, Justizia,
Lan eta Gizarte Segurantzza
sailburua, Miren Azkarate Kultura
sailburua, Jean Haritschelhar
euskaltzainburua,
Andolin Eguzkitza,
Javier Cruz Expósito Santurtziko
alkatea eta Xabier Kintana,
Euskaltzaindiko idazkaria





Euskal Herria itsasontziak Bilbotik Santurtzira euskaltzainak ekarri zituen Andolin Eguzkitzaren sarrera-hitzaldiaren ospakizunerako, 2002ko otsailaren 23an



Jean Haritschelhar euskaltzainburuak Andolin Eguzkitzari euskaltzain domina jartzen dio Santurtziko udaletxeko areto nagusian



Euskaltzainkideek A. Eguzkitari zorionak ematen dizkiote bere sarrera-hitzaldiaren egunean Santurtzin



Santurtziko Herriko plazan, Andolin Eguzkitzaren omenezko dantzaldia, 2002ko otsailaren 23an

Unibertsitateko irakasle

Estatu Batuetatik 1987an Euskal Herriratu zenean. Lehenik Deustuko Unibertsitatean hartu zuten irakasle. Geroago UPV/Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Filologi Fakultatera iragan zen. Euskara, gaztelania, ingelesa, linguistika orokorra, dialektologia erromanikoa, semantika eta tipologia linguistikoa irakatsi izan zituen.

2003.eko udazkenean Euskal Herriko Unibertsitatean Hizkuntzalaritza Orokorreko katedra batera aurkeztu zen. Aurreko urte osoa zeraman oposizio horiek prestatzen

eta eguna heldu zenean ongi burutu zituen proba guztiak. Orduetik aurrera, bazirudien lorturiko maila akademiko berri horrek egonkortasun lasaia eskainiko ziola. Halaxe pentsatzen zuen berak ere, eta hil baino aste bi lehenago, Erandion lagun batzuen etxean irakurri zuen poema batean, kostako haitzei sendoki loturik dauden lanpernen lasaitasunaz mintzo zen, horiek uhinen eraso bortitzak gorabehera, egonkor eta itxaropentsu bizi direlako. Halaxe espero zuen berak ere hurrengo urteak ematea. Baina bat-batean etena gertatu zen.

Heriotza goiztiarra

Ezerk ez zuen susmarazten Andolin Eguzkitzaren heriotza. Osasun onekoa zen eta bizi-modu ordenatua eta osasuntsua zeukan. Ez zuen alkoholik edaten ez eta tabakorik erretzen, eta astero gimnasia joaten zen sa-soian egoteko. Hil baino lehenago lagun eta adiskide askorekin ibilia zen solasean eta inork ez zion gaixo edo makalik egoteko itxurarik nabaritu. Horregatik guztiek ikaragarriko kolpea hartu zuten ustekabean 2004ko martxoaren 24an bihotzekoak jota, ospitalera eraman eta, sei ordutako ebakuntza bat gainditu ondoren, bat-batean zendu zenean.

Haren hileta-elizkizunak Santurtziko Done Jurgi parrokian egin ziren, meza Txema Auzmendik, Manu Barrenetxeak eta beste sei apaizek emanda, eta urte bi lehenago, haren aurrexean, udaletxeko areto nagusian, Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldia egin zuenean, bera zoriondu eta txalotzeko poza izan zuten adiskide berberak saminki deitoratu zuten haren betiko joanaldia. Eliza bete-bete eginda zegoen, berriro ere ideologia guztietako jendeekin. Hilkutxa Bizkaiko hiru euskaltzainek eta haren hiru senidek atera zuten elizatik, ikurrinaz estalirik. *Agur jauna* kantatu zioten eta azken aureskua dantzatu ere bai, 2004.eko martxoaren 26an han bilduek, eguraldi grisak ekitaldiari bere tristura eskaintzen zion bitartean.



Andolin Eguzkitzaren azken argazkietako bat

Herriko seme jatorra izan zen eta bere nazioaren kezka, sufrimendu, loriak eta miseriak bereganatzen jakin zuen. Zegoen zulo beltzetik ateratzen laguntzeko, eskua luzatu zion bere jendeari. Belaunaldi kontsekuente baten eredia zen bera. Argi erakutsi zuen erdaldun jaio arren, euskaraz ikastea eta lantzea posible dela, bai eta erdal giroan ere euskaraz bizitzeko ahalegina merezi duela, ingurukoei etsenplua emanaz. Ideologia eta politika guztien aitzinean humanismoa jarri zuen eta lagun hurkoarenganako errespetua. Zinez esan dezakegu bizi osoa Euskal Herriaren aldeko ereintza eta lantze atergabean eman zuela. Horregatik bere herriaren oroimenean haren argia ez da behin ere itzaliko.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Andolin Eguzkitzaren senideei*
- *Euskaltzaindiari*
- *Luis Amann Egidazu, Román Alonso de Miguel (1989). Imágenes de la historia de Santurtzi: álbum fotográfico del pueblo de Santurce. Gráficas Oggi (3. orriko argazkia)*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilariak: Joseba Olalde (g.b.), Eguzkitzatarren familia eta Euskaltzaindia

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2191-7 (Lan osoarena)
84-457-2192-5

L.G.: BI-2.961-04